

Profesionalak eta politikoak

Euskaldunon Egunkaria, 1992-05-12: 2.

Politikoaz gauza asko entzuten da azken aldi honetan. Gaizki gehiago, ongi baino. Ez da euskaldunon arazoa bakarrik, mundu osoko politikaria dago kritikoen ahotan. Heranegun, frantses telegailuko leihotik begira nengoela, ikastetxe handi bateko zuzendaria agertu zen hizketan. Ez zen ezaguna; ez politikari, beraz. Azken orduan jarri omen zuten Hezkuntza ministrariaren faltan politikologoek galderei erantzuteko. Eta konturatu ziren hauek, emakumeak zentzu handiz eta argi erantzuten zirela. Ordubetean aritu zen, bikain asko! Harrituta zeuden politikologoak zenbat gauza ari ziren ikasten gaztediaren arazo larrietaz: ikasketen zentzua, programak, droga eta eskoletan biolentzia, denetarako zuen irakasle honek erantzun neurritu, egoki, garbia... Hala, ni neu jarri ninduen pentsatzen emakumezko honek zekiela, egiataz, eskoletan zer gertatzen zen, eta nola, eta zergatik. Profesionala bait zen! Urte asko zeramakizkien haurren lanen jarraipena egiten, porrotak eta garaipenak ikusten, beldurrik gabe 'Jospin Legearen' alde onak eta txarrak adierazten! Nire buruari jarri nintzen esaten, irakasle zen honen ordez politikoa zen beste norbait izan bazen, ez zituela gauzak argi eta lasaitasun berarekin esango, bere partiduan egingo zuen eraginaren kezka aritu beharko zuelako. Botoak galtzeko beldur. Honez gero konturatu zirela politikariek andrearen balioaz eta laster izango zuela honek proposamenik bere taldean sartzeko, eta fitxatuko zuten andre honek politikari bezala hizketan jarriz gero xarma hau guztia galduko zuela. Eta zergatik ez ote zituzten alderdiek tolerantzi eta askatasun osoarekin bere profesionalei lana egiten uzten; botoak lortzeko biderik zuzenena gaur haxe, egia esatea, bait da...